


Aretxabaleta,
1993ko maiatzak 13

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA



Maiatzeko komerriak

• Afizioak: Jose
Luis Arratibel

• Atxabaltartua:
Patxi Alzola

• Kirolak:
Saskibalo
txapelketa

29. zka.



"Heziketa prozesu barruan bi arlo daude: sozializazioa eta euskalduntze prozesua".

Guraso gaiztoak al gara ?

Garai batean, lan-merkatura emakumearen sarrera zela eta, beste hainbat lekutan bezala, etxeko langilearen figura zeharo indartu zen.

Seme-alabak zituzten familiendako bi aukera zeuden, bata, normalean emakumea, etxean gelditu bertako lanak egiteko eta umeak zaintzeko eta bestea, etxerako langile bat "kontratatu". Azkenengo aukera hau ohitura bihurtuz, oso normala zen beraz norberaren umeak zaintzeko beste emakume bat kontratatzea. Baina horra-hor orain dela 3 urte non agertzen den aukera berri bat: haurtzainde-

gia.

Gauza berrietara moldatzea dexente kostatzen bazaigu ere, hainbat guraso animatu gara esperientzia berri hau jarraitzera.

Aukera berri guztiekin gertatzen den bezala, denetariko iritziak azaltzen dira kalean, entzun ditugu hainbat aldiz: nola eroaten duzu, 4 hilabeteko ume bat Pausokara? Zaintzaile batekin etxetik atera bari etzan hobeto egongo?

Pausoka guraso Elkarteak garbi dauzka bertako betebeharrak zeintzuk diren eta nola betetzen diren.

Umeak zaindu eta

hezitzen dituzte. Heziketa prozesu barruan bi arlo azpimarratuko genituzke: alde batetik sozializazioa eta bestetik euskalduntze prozesua. Dena den, ados gaude etxeko giroa guztiz eraginkorra dela umearen garapenerako Pausokako funtzioak eta familiarenak ezberdinak badira ere, besteari ez dio garrantzia kentzen, bien artean osatu egiten bait dira.

Guzti hauekin zera gura genuke: umezaintzailearen aukera hartu dutenak edota haurtzaindegiarena, inor ez dadila "guraso gaizto" sentitu. Aukera bat besterik ez da.

Begoña Arenaza
Pausokako Guraso Elkarteko
ordezkarria

Aretxagazeta


Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakubxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Noiztik eta zergatik ematen duzu odola?



Lucia Luque
(Etxekoandrea)

1987tik ematen dut odola. Ekintza polita iruditzen zait.



Manuel Roncero
(Langilea)

laktik ematen dut. Aurretik animatuta nengoen eta iaz hasi nintzen, ez nintzen hasi motibo bereziengatik. Jarraitzeko asmoa dut.



Paula Ruiz
(Etxekoandrea)

1990etik ematen dut. Ematea pentsatu nuen, nire ama gaisorik egon zenean eman ziotelako. Lehen ez nintzen ausartzen, baina orain bai.



Ana Mari Guerrero
(Umezaintzailea)

1988tik ematen dut. Nire anaiari txikitan odol transfusioa egin behar izan zioten eta ordutik ematen dugu nire amak eta biok.

KARTAK

Etorkizuna borrokatu

Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleek, Jarraik egindako konbokatoriari erantzunez, borroka egitea erabaki genuen, apirilak 30ean.

Gaur eguneko egoera-sozioekonomiko kezagarria salatu nahi dugu:

- Deba Garaian populazio aktiboaren %12a langabezian dago eta hauetatik %65 gazteok osatzen dugu.

- Hego Euskal Herrian 250 lanpostutik gora galtzen dira egunero.

- Hego Euskal Herriko lanegietatik %30a enplegu arauketan aur-

kitzen da.

- Euskal industriak 1986tik aurrera jasan zuen lehenengo birmoldaketa zigorraren ondorioz galdu zituen 170.000 lanpostu eta gero berriz ere bigarren birmoldaketa latza inposatu nahi digute.

Hau dela eta, asanblada burutu ondoren borroka eguna aurrera eramatea erabaki genuen, prentsa komunikatuak, informazio kartelak eta deitua zegoen manifestaldian parte hartuz.

Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasleak

Lanpostu deialdien informazioa

Kontutan izanik oso jende gutxiri heltzen zaiola administrazio aldetik dauden beken eta lanpostu deialdien informazioa, Udaletxeko lehenengo pisuko tabloian informazio hau jasotzen duten boletín ofizialak aurkezturik jartzea erabaki da.

Bai gazte, heldu, langabetu, enplegatu, karreradun edo karrerabako jendearentzat agertu daiteke zeozer, beraz, argi egon eta noizean behin begiradaxo bat botatzea gomendatzen da.

Orain daudenetako batzuk:

- Gipuzkoako herri desberdinetarako lanpostuak: pintore, administratibo, puerkultore, iturgin, kontserje...

- Bekak: kanpo merkataritzan, arte ederreran...

- Lehiaketak: kazeraritzan, argazkilaritzan...

Informazio gehiago lortzeko niregana Udaletxera etorri.

Marta Madinabeitia
Enplegu Teknikaria



Elkarri tailerraren aurkezpena

Maiatzaren 5ean Elkarriren Atxabaltako tailerrak prentsaurrekoa eman zuen udaltxeko ganbaran, helburu bi hauekin: Elkarri herriari aurkeztea eta maiatzaren 22an hasiko den sinadura bilketaren berri ematea.

Elkarri, Euskal Herriko gatazkaren aurrean ekaritzeta eta akordioa bultzatzen duen mugimendu soziala da. Borroka horretako aldean polarizazioa gairiditu guran giza bitartekaritza bideratuko du mugimendu honek.

Gai horretaz kezkatuta zeuden ba-

tzuk urte hasieran Elkarriren sorreran parte hartu zuten, eta Atxabaltan herri tailer bat sortzea pentsatu zuten.

Sensibilitate politiko, sozial eta erlijioso desberdineko jendeari deia zabaldu zitzaion, talde zabal bat osatu guran. Hainbat bileraren ondoren taldea finkatuta dagoela esan daiteke. Orain daukaten lan nagusienak Elkarri jendeari aurkeztea eta firma bilketa kanpaina aurrera ateratzea da.

"Akordioa 94" lemapean inoiz egin den sinadura bilketa haundiena egitea da Elkarriren helburuetako bat. Atxabaltan maiatzaren 22an hasiko dira kanpainarekin.



V. bedar-zilo erakusketa

Maiatzaren 6an Elkarte Autonomoko V. Zilogintza Erakusketa izan genuen Atxabaltan. Erakusketa hori urtero leku desberdinetan egiten da, eta aurtén Arientza-Etxebarri Elkarteari tokatu zaio.

Erakusketa horrekin, Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Arientza-Etxebarri Elkartek daukan sistema erakutsi gura zuten Autonomi Elkartean horretatik bizi diren baseritarrei.

Erakustaldiak hiru zati desberdin izan zituen: lehenengo, 1988-1992 epealdian ziloen emaitzekin izandako bi-


lakaera azalduz hitzaldia eskaini zen Otolara Jauregian.

Bigarren zatian, Elkarrekin batera zilo lana egiteko erabiltzen duen metodoaren demostrazioa egin zen: bolak egitea eta autokargadoraz trintxerak betetzea. Artoa eriteko sistema ere erakutsi zen.

Azkenik, zilo lana bukatuta gero, Arientza-Etxebarri Elkarrea bisitatu zuten. Ondoren Gatzagara joan ziren bazkaltera. Bazkal ostean Eusko Jaurlaritzak neguan jaso zituen ziloen sailkapen bat eman zuen eta muestra horretatik onenei sari bat eman zitzaion.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**

**SAGASTA
ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otolara, 14
☎ 79 16 10



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABALETA

Saltsa ikastaroa

Maiatzaren 17an hasi eta 28ra arte, Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako saltsa ikastaroa emango da. Ikastaroa musika eskolak dauzkan lokaletan izango da.

Ikastaroa honako egun hauetan izango da: astelehen, eguazten eta eguakotxean.

Orduak: goizeko

11etatik 12,30ak arte eta arratsaldeko 6etatik 7,30ak arte.

Apuntatu gura duena Kultur Etxera joan dadila edo bestela 79 01 05 telefonora dei dezala.

Ikastaroaren prezioa 2.000 pztakoa da Kirol-Etxeko bazkide direnentzat eta 2.500 pzta bazkide ez direnentzat.



Eskola arteko IV. olinpiadak

Datorren maiatzaren 22an Atxabaltan Deba Garaiko eskola arteko IV. Olinpiadak izango dira. Deba Garaiko edozein herritako ikastetxeetan dabilzan O.H.O ko 5. mailatik 7. maila arteko neska mutilek parte har dezakete.

Olinpiadak Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak antolatu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

Antolatzaileek 1.200 haur inguru espero dituzte Atxabaltan, hala eta guztiz ere, maiatzaren 14era arte apuntetako epea zabalik dago.

Apuntetako fitxak ikastetxeetan banatuko dira eta fitxak beteta gero Kirol arduradunari eman beharko zaizkio.

Jai handi horrek arratsaldeko 3retatik 7.30ak arte iraungo du.

3. adineko II. kirol jaia

Datorren zapatuan, maiatzaren 15ean, arratsaldeko 3retatik aurrera Deba Garaiko 3. adinekoei zuzendutako II. kirol jaia egingo da Oñatan.

Ospakizuna Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak antolatuko du. Bertan, Atxabaltako 50 lagunek parte hartuko dute.

Jaia hiruretan hasi eta 7ak arte luzatuko da. 3retatik 5,30ak arte ekintza desberdinak egingo dituzte. Pilotalekuan: badminton, boleibol, pelota, ... Gimnasioan: herri kirolak. Squash-etan: punteri jokuak, frontenis. Kantxan: trebetasun zirkuitoak, baloi erraldoiak, freesbe, diabol, golf... Horretaz aparte, arku tiraketa, igerilekuan jokuak, Oñatiko inguruetatik txangoa eta mahai jokuak izango dira. 5,30etan opari banaketa egingo da eta 5,45etatik 7ak arte lunch-a eta dantzaldia.

Jailadi hau ospatzen den 2. urtea da, lehengoa gogoratuko duzue, Atxabaltan egin zen, eta bertan giro ederra eta partehartze handia izan zen.

Antolatzaileek zapatu-rako antzeko erantzuna edo hobe espero dute. Eta lerro hauen bitartez, ospakizun honetan parte hartuko dutenei ondo pasatzea opa diete.

• Oraingo Bake Epailea izendatu zenetik lau urteko epea igaro dela eta, Udalak Bake Epaile eta ordezkoko baten aukeraketa egin behar du. Apirilaren 30etik, maiatzaren 21era arteko epea zabaltzen da kandidatua aurkeztu daitezela.

• Uztailean Udaleku irekiak izango dira Eskoriatzan. Hori dela eta, Udaleku ireki horietan monitorea lanetan parte hartu gura duten gazteek, izena maiatzaren 15a baino lehen eman behar dute Eskoriatzako Kultur Etxean.

• Maiatzaren 24ean, Bosnia-rren aldeko Batzordeak antolatutako prentsaurreko irekia izango da, San Biator Harrera-etxean, arratsaldeko 7etan. Gai: Bosniarren egoera barria.



Krosseko emaitzak

Aurten, urtero moduan, maiatzaren 9an Otxola Zelaiko krossa izan zen Urkuluko urtegia. Guztira 125en bat korrikalari ibili zirenekin, goizeko 11etatik aurrera.

Lasterketa eguerdiko 12,30ak aldera bukatu zen eta azkenengo emaitzak honako hauek izan ziren:

Juniorretan 25 partaide izan ziren, lehena Beñat Ayastui izan zen eta lehengo atxabaltarra Aitor Atxa; emakumeetan 17 partaide, lehena Maria Pilar Valdezate izan zen eta lehenengo atxabaltarra Amaia Gaztañaga; beteranoetan iraba-

zlea Enrike Kabiketa 43' 34" denborarekin eta Jesus Lonbide izan genuen lehen atxabaltarra; eta azkenik Seniors mailan irabazlea Jose Apalanza izan zen 41' 22" denborarekin, bigarrena Ramon Jausoro atxabaltarra 41' 22" denborarekin eta hirugarrena Santi Azurmendi.

Seniors Kategorian lasterketaren errekor barria ezarri zuten Jose Apalanzak eta Ramon Jausorok.

Egun polita izan zuten krosslariek domekan Urkuluko presan, gainera jende asko batu zen korrikalariak ikusteko asmoaz.



Diputatuen bisita

Joan den apirilaren 30ean diputatuen bisita izan genuen: urbanismo sailko Anton Arbulu, ingurugiro sailko Enrique Noain, eta baita diputatu ordea eta ekonomia diputatua den Guillermo Etxenike ere.

Bisita horrekin honako helburu hauek lortu gura ziren: ekonomian, ingurugiroan, urbanismoan eta obra hi-

draulikoetan egiten diren ekintzetan koordinazioa bultzatzea Atxabaltako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia artean.

Goizeko 11.30etan gai desberdinak eztabaidatu ziren. 12.30etan orain egiten dabilzan obrak bisitatu zituzten eta gero Urkuluko urtegia ikustera joan ziren.

Barrero lapurretak

Aste Santuko oporretan lapurretak izan baziren, joan den maiatzaren 7an Taberna-Berri jatetxean, berriro lapu-

rrak bisitari izan genituen. Aurrekoan ez bazuten sartzetik lortu, oraingoan lortu dute dirua erotea.

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

ANDONI ALTUBE

**ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK**

Durana, 36
☎ 79 10 60



GARAGE NORTE, S.L

OPEL AGENTZIA OFIZIALA

Basabe pasealekua - A- 13 - Tfnoa: 79 62 65

Jose Luis Arratibel esan ezkerro, behar bada ez duzue jakingo nor den, baina nork ez du ezagutzen Atxabaltako sakristaua?. Elizara joan eta bera ez ikustea arraroa izango litzateke denontzat. Jose Luis Arabako herri txiki batean jaio zen, Larrea izenekoa, baina 30 urte daroa gure artean eta guretako atxabaltarra da. Lan handia egiten du eliza inguruan eta herriak asko apreziatzen duen pertsona da.



Jose Luis Arratibel, sakristaua

• **Nola hasi zinen sakristau lanetan?**

• Txikitan nire herrian eliz-mutila izan nintzen, eta beti egon naiz mundu horretan sartuta.

• **Noren bitartez sartu zinen Atxabaltako elizan?**

• 18 urte nituela, Arrasatera joan nintzen lan egitera eta han Maximo Lasagabaster ezagutu nuen eta bera

Atxabaltako koruan sartuta zegoen. Maximo Lasagabasterrek esan zidan sakristau postua libre zegoela, eta animatu eta sartu egin nintzen.

• **Zer eskatzen zuten sakristau izateko?**

• Afizio handia izatea besterik ez, baina niri Don Angelek euskaraz jakitea eskatu zidan.

• **Eta zu bakarrik aurkeztu zinen postu horretara?**

• Ez, nirekin batera beste bi mutil aurkeztu ziren. Baina Maximo nire laguna zenez eta bertan sartuta zegoenez, bere laguntzaz sartu nintzen.

• **Nola ikasi zenuen euskaraz otoitz egiten?**

• Don Pedrok iloba

bat zeukan seminarioan eta berarekin ikasi nuen.

• **Sakristau izatea zer da afizioa ala lana?**

• Orain dela urte asko lana zen, baina orain afizioagatik egiten da, Oso gutxi irabazten da eta jendea ez dago prest horretarako. Baina etxea debalde ematen digute, hori da sakristau baten abaintala berezia.

• **Zer egin behar du sakristauak?**

• Elizako gauzak ondo gertatu behar ditu, gero mezatan dena ondo egon dadin.

• **Zuk uste duzu jendeak zeure lana baloratzen duela?**

• Bai, jendea nirekin beti oso ondo portatu da eta gustora nago Atxabaltan.

• **Baduzu anekdotarik?**

• Bai, Don Angelek behin esan zidan mezatan berarekin egoten banintzen, ez ziola inporta besteek abesteak, niri bakarrik entzutearekin nahikoa zuela.

*T.Aragones
A. Galdaera*




LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Aurten ere, hirugarren aldiz antzerki hilabetea izango dugu Atxabaltan. Talde profesionalak eta amateurak ikusi ahal izango ditugu. Antzerkiak kalean, Zaraia zinean eta Kurtzebarri eskolako aretoan zango dira. Antzerki horiek ikusi ahal izateko 300 pztza ordaindu beharko da, kalekoa izan ezik. Antzerki hilabete horren barri jakiteko, Udaleko Kultur eta Kirol teknikaria den Inma Miguelekin izan gara.



Maiatza, antzerki hilabetea

• Noiztik antolatzen da antzerki hilabetea?

• Hasieran, noiz behinka ekartzen genituen antzerki taldeak. Baina gero, urtean zehar egiten diren antzerki ekintza horiek batzea pentsatu genuen, horrela talde gehiago batera ekarriaz arrakasta handiagoa izango zuelakoan.

Gainera, zinea apirilera arte egoten denez, jarraipena izan zezan antzerki hilabetea maiatzean antolatzea aukera ona zela iruditu zitzaigun.

• Zein da antzerki hilabetearen helburua?

• Batez ere afizioa sortzea. Ezin ditugu talde profesionalak ekarri eta amateurak ekartzen ditugu.

Baina aurten aktore profesional bezala osatutako talde bat izango da, "Bederen bat".

Afizio sortzeaz gain, herriari beste aukera bat eskaintzea da helburua.

• Jendeak parte hartzen du?

• Gutxika-gutxika partehartzen eta animatzen dabil. Adibidez lehenengo urtean, Louvier's taldearekin Kurtzebarri eskolako aretoa bete egin zen eta bigarren urtean jende askok kalean geratu behar izan zuen.

• Nork antolatzen du kultur eskaintza hori?

• Joan zen urtean, Gaztetearekin batera antolatzen genuen, baina aurten Kultura Batzordeak

bakarrik antolatu du.

• Zein da aurrekontua?

• 800.000 pztako presupuestua dauka antzerki hilabeteak. Baina kontutan izan behar ditugu talde bakoitzak antzetzeko eskatzen duen diru kopurua, propaganda...

Adibidez, aurten etorriko diren eskatzen dutena hau da: *Bederen bat* taldeak 250.000 pztza, *Ñake* taldeak 140.000 pztza, *Louvier's* taldeak 175.000 pztza, *Trapu zaharrak* taldeak 225.000 pztza eta Peter Roberts debalde.

• Badaukazue diru laguntzarik?

• Bai, Eroskik propaganda patrozinatu digu eta baita kafe teatroan emango diren pastak eta txanpaina ere. Horretaz gain Diputazioak urte osorako egiten ditugun ekintzengatik diru kopuru bat ematen digu.

• Nori zuzenduta dago antzerki hilabetea?

• Jende gazte eta helduei zuzenduta dago batez ere. Umeendako beste ekintza batzuk antolatzen dira urtean zehar.

• Zeinek erakartzen du jende gehiago kaleko antzerkiak ala barrukoak?

• Kaleko antzerkia ikustea samurragoa da, kalean ikusten baduzu eta gustokoa bada gelditu egiten zara ikusten. Zinean bada, orduan sartu egin behar duzu eta lokal batean sartzea gehiago kostatzen

" Aurten antzerki talde profesional bat izango da gure artean, Bederen bat "

zaio jendeari.

• **Hiru urtetan zehar antzerki hilabetea antolatuta gero, zergatik ez da inoiz antzerki talde-rik sortu herrian?**

• Talde bat egon da. Horien ideia euskarazko antzerkia egitea zen, baina ez zuten aurrera jarraitu. Hala eta guztiz ere, herrian baditugu antzerki munduan sartuta dauden pertsonak; Jurgi Etxebarria eta Dabid Errasti. Horiek kanpoko taldeetan sartuta daude.



Joan zen urteko Louvier's taldearen antzezlaneko argazkia

Maiatzeko antzerki hilabetearen egitaraua

TRAPU ZAHARRA " Visto y no visto"

Maiatzaren 7an, arratsaldeko 7etan Durana Kalean

PETER ROBERTS "Un hombre solo"

Maiatzaren 11an, arratsaldeko 3,30etan Zaraia zineman

LOUVIER'S "Rizando las ondas"

Maiatzaren 14an, gabeko 10etan Kurtzebarri eskolako aretoan

BEDEREN BAT "Argirik piztu gabe"

Maiatzaren 21ean, gabeko 10etan Zaraia zineman

ÑAKE TALDEA "Vivir del cuento"

Maiatzaren 28an, gabeko 10etan Zaraia zineman

Patxi Alzola

Sestaotik Atxabaltara

• **Non jaio zinen?**

• Durangon jaio, baina gero bizi Sestaon bizi izan nintzen, nire aitak han lan egiten zuelako.

• **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

• 1934. urtean 18 edo 19 urterekin. Bakarririk etorri nintzen.

• **Zein arrazoirengatik?**

• Lana zela eta etorri nintzen. Hemengo lan-tegiko zuzendaria Sestaokoa zen eta horren bitartez hona etorri nintzen lanera.


• **Zein izan zen zure lehen etxebizitza?**

• Ni lehengo apopilo bizi izan nintzen Makazaganean. Kale erdian zegoen bi pisutako etxe batean. Gero gerra garaian barrero Bilbora bueltatu nintzen. Gerra bukatu arte ez nintzen etorri, 4 urte inguru pasatu ziren barrero etorri nintzen arte. 41ean hona ezkondu nintzen.

• **Zure lehen lagunak hemen zeintzuk izan ziren?**

• Jose Mari Elkor, Andoni Ugalde, Vitoriano Agirre... denak euskaldunak ziren, orduan nik ere euskaraz banekien eta.

• **Zer kostatu zit-**



zaizun gahien hona etorri zinenen?

• Ezer ez, ondo mol-datu nintzen etorri orduko. Orduan 2.000 biztanle besterik ez zituen Atxabaltak eta gainera herria ere oso txikia zen.

Herria, orduan, Beroa pareko etxe barrietaraino heltzen zen handik gora denak ziren ortuak. Orduan kuartela egiten zebiltzan, ordurarte Eskoriatzan zegoen.

• **Ze inpresio egin zizun hemengo eus-**

karak?

• Bardintsua zen. Hemengo euskara ere bizkaiera da gehienbat.

• **Sentitzen duzu herriminik?**

• Bai, zerbait bai. Gustatzen zait noizbehinka handik bueltatxo bat ematea. Urtero joaten naiz eta aurtien ere badaukat joateko asmoa.

• **Atxabaltatik zer gustatu zitzaizun gehien?**

• Ez da samurra gehien zer gustatu zaidan esatea, dena. Nik oso

ondo pasatu dut Atxabaltan gazte denboran, baina oso ondo.

• **Ze desberdintasun dago Atxabalta eta Sestaoren artean?**

• Oso desberdinak dira, ura eta ardoa moduan. Sestao haundia-go da eta fabrika gehiago dauka etxebizitzak baino.

• **Eta hango eta hemengo jendearen artean badago desberdintasunik?**

• Bai, hangoak zabalagoak dira hemengoak baino. Han gehiago berba egiten dute eta alaiagoak dira.

• **Eta ohiturak?**

• Bai, badago desberdintasuna. Orduan han gauza gehiago egiteko aukera zegoen. Itsasoaren ondoan bizitzeak aukera haundia-koak ematen zituen arraunean eta horrelakoak egiteko.

• **Zein izan zen gehien harritu zintuen ohitura?**

• Aberats eta pobreen artean ez zegoen inongo desberdintasunik. Han adibidez, tailer bateko jabea eta langileak ez ziren batera ibiltzen; hemen, barriz, denak batera ikusten ziren kalean. Detaile horrekin etorri orduko geratu nintzen.

• **Atxabaltartzat daukazu zeure burua?**

• Bai, jakina, horrenbeste urtetan hemen bizita gero.



■ **Maiatzaren 2an, Plazentzin izan zen "Memorial Jesus Acha" Junior-Kadeteko lasterketan, Almen-U.D.Ako Aitor Atxa atxabaltarra izan zen irabazlea 4.100 metroko distantzian.**

■ **Unai Errasti eta Zuazubiskar pelotari gazteak euskadiko txapelkunak dira senior mailan. Txapelketa irabazteko iparraldekoen aurka jokatu behar zuten, baina hauek ordezkari ez zuten, eurok geratu ziren irabazle. Sarien artean "Txapelkunak 1993" jartzen duen kamiseta bat eman zioten.**

VI. Arlutz saskibaloitxapelketa

Barriro ere Arlutz saskibaloitxapelketa hasi da martxan. Aurten egingo den txapelketan herriko 9 talde daude apuntatuta.

Aurtengoa da Arlutz tabernak antolatzen duen 6. txapelketa. Antolatzaileen ustetan, orain arte 13-14 talde egoten ziren apuntatuta, baina iaz taberna itxita egonenez, ez zen txapelketarik egin eta

aurten talde gutxiago apuntatu dira.

Talde bakoitzak txapelketa horretan parte hartzeko 3.000 pzta ordaindu behar du eta diru horrekin irabazleentzako sariak erosten dira.

Orain arte 3 jardunaldi jokatu dira, baina bigarrena ezin izan zen jokatu euria egin zuelako. Jardunaldi hori, antolatzaileak

esan digutenez, azkenengo astera pasatu dute.

Txapelketa zapatu arratsaldean jokatzen da, eta ikusle ugari elkartzen da bertan: txikiteoan dabiltzanak, saskibaloizaleak, lagunak...

Hona hemen azkenengo jardunaldia jokatuta gero zela dagoen sailkapena eta datorren jardunaldian jokatuko diren partiduak.

SAILKAPENA

- 1.- Flispas
- 2.- Las Kagau. R.
- 3.- Arabatxo Waka
- 4.- Dos de caso
- 5.- Don Mendo
- 6.- Fatxus & tre other
- 7.- Saco de speed
- 8.- La mierda la sole
- 9.- Bas-otxo

4. IHARDUNALDIA

3retatik 4retara	Saco de speed-La mierda la sole
4retatik 5etara	Don Mendo-Fatxus & the other
5etatik 6etara	Arabatxo Waka-Las Kagau. R.
6etatik 7retara	Flispas-Bas-otxo

Atsedena: Dos de caso

■ **U.D.Ako neskek domekan 1 eta 0 galdu arren, Gipuzkoako semifilaterako klasifikatu dira. Zorionak eta zorte ona opa diegu.**

Otala Zelai 1866an

Otala Zelai egunak atxabaltarren artean sustrai sakonak ditu. Gaur egun jai giroan ospatzen bada ere, lehenago, behar bati lotutako ekintzaren inguruan antolatzen zen eguna. Maiatzean aukeratzen ziren baserri auzo bakoitzak azaldutako zezenen artean, mendira jareingo zirenak behien "zerbitzurako". Aukeraketa eguntzat, maiatzeko 12aren hurrengo igandea hartu zuten garai batean, eta gaur arte iraun du jaiak, besteak ez. Dena den, eta garai hartako bizimoduaz pixkat jabetzeko hona hemen, Udalak auzoei jarritako baldintzak zezen kontu hauetan: Kalekoek, Oro eta Etxeba-

rrikoekin batera zezen bat jarri behar zuten, maiatzean ekin eta urte betez behien "zerbitzuan" ari-tuko zena. Korueta, Aozarata, Larrino eta Bedoñakoek, auzo bakoitzak zezen bat. Galartza eta Izurietakoek artean beste zezen bat. Azaldutako zezenek, bi urtetakoak izan behar zuten, 6 kuarta t' erdi altueraz eta gainera, ondo egindakoak.

Zeinek esango 1866. urtean, Francisco Urrutia (Zelaikoa) orduko Alkateari, edota Jose Antonio Arenaza edo Alejandro Herrazti zinegotziei, gaur egungo gazteek, telebista besterik ez dutela zezenak bizirik ikus ahal izateko, eta hori, Canal + duten etxeetan bakar bakarrik.



ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

- Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

- Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Ze auzotan dago, argazkian ageri den kanposantua?



Erantzuna:.....
 Izen-abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Tfnoa:.....

Barriak eta komeriak



J.J. Aretxaga

Gure etxean beti dugu barriren bat. Oraingo barria ez da guztiz barria gure artean. **Agurtzane Elgoro**, aldizkari honen hasieran gurekin izan genuena, barriro ere Aretxagazetara bueltatu da, egun erdiz. Gazteria progresatzen ari da. Beste atxabaltar bat, **Jurgi Etxebarria**, telebistan ikusten dugu noizean behin. Jurgi antzerki munduan murgilduta dabil eta Euskal Telebistako Flamingo Berria programan esketx batzuetan lehenengo pausotxoak eman ditu.

ETB baino telebista txikiagoa da ATB, baina herrikoia. Gure herriko jendea takien-takien agertzen da bertan. Adibidez, lehengunean, **Leire Gorostiza** beinkeneska agertu zen ATBketan izeneko lehiaketan. Aurreko astean barrez, Aretxabaletako Elkarriren Tailer Lokalaren aurkezpenean ere etorri ziren Arrasate Telebistakoak. Notizia luzea bota zuten gero informatiboan. ATBko informatibo horretan Elkarriko **Mirian Txintxurreta**, **Gorka Etxabe** eta **Ormaetxea 'Txerren'** agertu ziren. Larri ikusi geni-

tuen. Seguru sekula ez zietela telebistako mikrofono bat ahoan jarri. Hola ikasten da. Eta telebistatik lehiaketa batera goaz. Bergarako Labe Garaiak auzoko jaietan egin zen mus txapelketan 6 atxabaltar aurkeztu ziren. Horreitatik bi, **Elgoro** eta **Poli**, finalera heldu ziren.

Joan zen igandean Senpereko Herri Urratsera joan zirenen artean komeriak izan ziren. Sekula baino jende gehiago egon zen, eta hainbeste autobusen artean, atxabaltar batzuk euren topatu ezinik ibili ziren. Gero, badakizue, beti berandu ibiltzeko mania hori... Kontua da batzuk taxisean eta autoestopean etorri behar izan zutela. Tartean **Fernando Uribesalgo**, laster K-2ko espedizioan joango den mendizalea. Senperen galdu bada, K-2n komeriak izango ditu. Komeriekin hasi garenez, badira gure herrian komeriak egiten ikasten ari direnak. Aurreko batean esan genuen Salsa ikastaroa egongo zela kuartel zaharrean. Ba orain beste inbento bat ere bai: aerobic. **Maria Jesus Andueza** izango da irakaslea. Herriko andra mordo bat apuntatu ei da.

Akabetako, kontu serioagoak aitatuko ditugu. Ikastola eta eskolen gaia puripurian dago gure herrian, beste herri askotan bezala. Udalak **Pello Aierbe** Zorroagako irakaslea kontratatu du herriko mapa eskolarra egiteko. Hain herri txikian ere mapak egin behar. Instituzioen gauzak.

13

EGUENA

- Zaraia Mendi Taldearen eskutik mendi proiektzioa.

- **K-2 espedizioaren aurkezpena**, Zaraia zinemaren arratsaldeko 7retan.

15

ZAPATUA

- **Deba Garaiko 3. adinekoentzat 2, kirol jaia** Oñatin.

16

DOMEKA

- **Otalazelai eguna.** Bertan, bendaren ekitaldia, bertsolariak, animaliekin jokoak, patata tortila lehiaketa, umeendako jokoak eta abar izango dira, Gauean Durana kalean dantzalicia ere bai.

- **Murrukixoko eguna.**

- Zaraia Mendi taldearen urteera: **Aldabe.**

- Zikloturisten urteera: **Atxabalta-Urbi-**

na-Vitoria-Puerto Azaceta-Atxabalta.

- Futbol partidua: **U.D.A - Lazkao K.E**



17

ASTELEHENA

- **Saltsa ikastaroaren hasiera.**

22

ZAPATUA

- **Eskolarteko 4. olinpiadak** Kirol Etxean

23

DOMEKA

- **Murrukixoko Mendi-zale Elkartearen urteera: Gatza Urbixa.**

- **Zikloturisten urteera: Aretxabaleta-Nar-baja-Salvatierra-Puerto Opakua-Maestu-Azazeta-Aretxabaleta.** (125 km)

ARETXAZOKA

Lana

- Neska bat gertu etxeke lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 (Maika).

- Larunbat goizean ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- 8. mailako haur bati, klase partikularrik emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 05 26.

Lana

- Emakume bat etxeke lanak, portalak garbitzeko eta abar egiteko prest dago. Tfnoa: 71 46 24

Salerosketak

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT
 
GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
 ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK

BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

ARLUTZ
TABERNA
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34


HAIZEA AKEITEGIA
 Mitarte Kalea, 2/G
 Tfnoa: 79 85 57

T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
 ARETXABALETA

Zatoz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!

 BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN

MATIKUA TABERNA
 Azatza auzoan
 ☎ 79 16 68
ARETXABALETA

JAUREGI OKINDEGIA (Panaderia)
 Otalora, 10
 ☎ 79 57 47

I O S U URDAITEGIA
 MITARTE, 1 eta GORBEA, 8

DORLETA TABERNA
 Loramendi 10
 ☎ 79 94 15

Optica

 Loramendi, 10
 ☎ 79 98 21

IBARRA. ESTANKOA

 Tabakoa eta ikasmateriala

 Bizkaia, 3
 Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI "
AKEITA ETXEA

 Aralar Kalea, 7
 Tfnoa: 79 32 83

NERIAN
 Loradenda
 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zatoz %7ko Superlibretaren abantailak ezagutzera.

Superlibreta, duen errentagarritasun handiak eta sinpletasunak bereizten du. Baina, zuk, gainera, jakin beharko zenuke...

- helbideratze guztiak onartzen dituela: nomina, pentsioa, ordainagiriak, kontribuzioak, e.a.
- kobruak, ordainketak eta eskudiruaren erabilerak formaliza daitezkeela gure edozein sukurtsaletan.
- kutxazain automatikoetan eragiketak egin eta dendetan ordaintzeko ServiRed Visa Txartela dohainik lor daitezkeela.
- ez duela komisiorik.
- interesak egunero kalkulatu eta azaroaren 30ean ordaintzen direla denak batera.
- urteko interes finkoa, UTBa, %7,15ekoa dela 100.000 pta.tik gorako saldoetan, eta %0,10ekoa kopuru hori baino saldo txikiagoetan.
- Euskadiko Kutxaren ohizko libreta Superlibretaz aldatzea oso erraza dela, helbideraketa, txartel eta abarri ez baitie eragiten. Bakar-bakarrik libreta aldatzen da.